



2010eko urtarrilaren 15ean

HERRIKO KONTSEILUKO Jaun-Andere
Kideak

Réf. : JMB/MHM – 65/2010

**2009ko abenduaren 15ean, ASTERATEAREKIN, HERRIKO
ETXEAN IZAN DEN HERRIKO KONTSEILUKO
TXOSTENA**

BERTAN ZIREN :. Guy POULOU Auzapez Jauna,, LOLOM Jauna, DUBARBIER Anderea,. BERLAN Jauna, GHOSSOUB Anderea, LALANNE Jauna, WATIER DE CAUPENNE Anderea, MACHENAUD Jauna, MINTEGUI Anderea, HIRIART Jauna, IDIARTEGARAY-PUYOU, ANCIZAR Andereak, IBARLOZA Jauna, CAPDEVILLE Anderea, GOUAILLARDET, ANIDO Jaunak, HARDOY, ORIVE Andereak, ERRANDONEA Jauna, UGARTEMENDIA Anderea, GOURAUD Jauna, DUGUET, TAPIA Andereak, MADRID Jauna.

AHALORDEAK : URBISTONDOY Jaunak GHOSSOUB Andereari, COSTE Jaunak ORIVE Andereari, GLOAGUEN Andereak ANCIZAR Andereari, BAZERQUE Andereak GOURAUD Jaunari, MINTEGUI Jaunak TAPIA Andereari.

BERTAN ZIREN : BORDENAVE Jauna, Zerbitzuetako Zuzendari Orokorra, LAHOURNERE Jauna, Finantza Zerbitzuetako Arduraduna.

GAI ORDENA :

I/ Orotarikoak :

- 1) 2009ko agorrilaren 4 eta 13ko Herriko Kontseiluetako saioen bildumaren onarpena,
- 2) Herriko Kontseiluaren ordezkari Auzapezari,
- 3) Novelty karrika itsuaren herriaren jabetza : Salmenta Engaiamendua,
- 4) Ziburuko Herria « ASPOROTSTTIPI centre d'interprétation de la corniche basque » (« ASPOROTSTTIPI, euskal erlaitzaren interpretazio zentroa ») elkartean sartzea
- 5) Herrien arteko Erabilerraztasun Batzordea : ordezkari baten izendatzea,
- 6) 2010eko egur moztea,
- 7) Bide Berdea, Pirripitabide mugaz gaindiko proiektua,
- 8) Euskararen sustapenerako Hitzarmena.

II/ Finantzako gaiak

- 1) « Euri urak » konpetentzia Herriarteko Sindikatuari eskualdaketa DONIBANE LOHIZUNE eta ZIBURU Herrien Hornikuntza eta Antolaketarako,
- 2) France Télécom : Bideetako Eremu Publikoaren okupatzeko karga,
- 3) Sainte Thérèse Etxegunearen aitzin-kontua : Aldaketa erabakia,
- 4) Herriaren Aitzinkontu Nagusia : Aldaketa erabakia,
- 5) Gazte Saileko Aitzinkontu berezia : diru-laguntza baten emakida,
- 6) 2009ko martxoaren 22ko udaberriko ibilaldian parte hartzea,
- 7) Gida Praktikoa 2010en prezioak,
- 8) Kreditu irekitzea,
- 9) Erretako ibilgailuaren kalte ordaina,
- 10) Leku eskubideak, bide eskubideak, iragarki era aparkatze eskubideak : 2010eko prezioak,
- 11) 2010eko herriko prezio orotarikoak,
- 12) Ostatatzerik gabeko Aisialdi Zentroak : 2010eko prezioak,
- 13) 2010eko Herriko Aldizkaria : Iragarkien prezioak,
- 14) Eskoletako jantegiak : 2010eko prezioak,
- 15) 2010eko jatorrizko aitzinkontua : diru laguntza aurrerakinak,
- 16) Inbertsio kredituen laurdenaren irekitzea,
- 17) Auzapezen Kongresua : xahutzeen ordainketa,
- 18) 2010eko Egonaldi Zergaren prezioak,
- 19) Euskal Herriko PACT-CDHAR : Diru-laguntza eskaera,
- 20) Pagatuzko aparkalekua,
- 21) Gizarte jabetza lorpena : Herriko diru-laguntza,
- 22) Euskal Herri Hegoaldeko Herri Elkargoekiko Hitzarmena, Herriko langileak euskalduntzeko lanbide heziketarako,
- 23) Gizarte gastuen gehiengotze Hitzarmena,
- 24) Herriko Liburutegiko liburuen salmenta : Téléthoni eskaintza,
- 25) Sareen lurperatzea SDEPAren eskutik : 8. Erabaki aldatzailea,
- 26) Sareen lurperatzea SDEPAren eskutik : 9. Erabaki aldatzailea,

III/ Herriko Etxeko langileak

- 1) Laneko osasun eta segurtasun zerbitzuko prebentzio medikuntzan sartzea,
- 2) Haur gazte lurralde hezitzaile lanpostu koadroko langileen ordainsari erregimen ematea,
- 3) Goi mailako teknikari buru enplegu sortzea,
- 4) 2. klaseko administrari laguntzaile lanpostu baten sortzea,
- 5) Bi lanpostu sortze CAE dispositiboaren baitan,
- 6) 1. klaseko haurtzaintza laguntzaile lanpostu baten sortzea,
- 7) Aitzinamendua lortu eta lortzekotan direnen ratioen zehaztapena,
- 8) Gradu aitzinamendua 2010 urterako,
- 9) Herriko Etxeko langileak : Segurantza kontratuak.

IV/ Zerbitzu Teknikoen galderak

- 1) Dei Publikoen Batzordea : Lehendakari-orde baten hautaketa,
- 2) Merkatu Publikoak : Aldaketak Bordagain dorrearen berriztatze (2. zatia – . fasea 1)

Pierre BERLAN Jauna saioaren idazkaria izendatua da.

I/ 2009ko agorrilaren 4 eta 13ko herriko kontseilu saioen bildumaren onarpena

2009ko agorrilaren 4 eta 13ko Herriko Kontseiluen bilduma aho batez onartua da.

II/ Orotariko gaiak

DUGUET Anderearen mintzaldia :

Auzapez jauna, herriko kontseilari Jaun eta Andereak, 2. aldia da aurtan, ez dugula lege testuek agintzen duten bezainbat kontseilu biltzen. Oroitaraz dezagun L2121-7 artikulua, honek diolarik herriko kontseiluak behar duela hiru hilabetetarik behin bederen bildu.

Auzapez Jauna, guzien gaintetik gai baten inguruan bat egin dezakete herriko kontseiluko kideek (gehiengoa eta oposiziokoak), herriko haurren etorkizuna eta beraz honen eskolena ! Baina Ziburun, ez dugu horrela egiten eta arazo nagusi honi buruz zuk aipamen bat gutienez ez egiteak harriarazten gaitu. Nahi genuke herriko kontseilua bil dadin, molde pribatu edo publikoan, Marinela eskolaren hesteaz bereziki mintza gaitezen. Saio bukaeran pausatu behar den galderari 4 minuta baizik ez baitzaio eskainiko (2 oposioarentzat eta 2 zuentzat), arrunt eskasa izanen da arazo honek sor lezazkeen ondorioei begira.

Auzapez Jaunak oroitarazten du 2009 urtean, saio bat bederen hiru hilabete guziz egin dela. Errazki egiazta daitekeena da. Hala ere, Prefeta Jaunari idatz diezaiokezu, azken denbora hauetan horren egiteko usaia hartu baituzu.

Marinela eskolari dagokionez, Auzapez jaunak dio zehazki aipatuko duela saio bukaeran. Ez da beharrezkoa izanen beraz herriko kontseilu berezi bat deitzea gai honen aipatzeko.

1/ Herriko Kontseiluaren ordezkartza Auzapezari (Lurralde Elkargoen Kode Orokorra)

Ordezkaritza honi esker, ondokoak izenpetu ahal izan dira :

- Etxebizitza erabilerako alokairu bat Thierry LAHORE Jaunarekin (BAIONAko Suprefeturan onartua 2009ko ekainaren 24an) ;
- ALTXA ZOKOA Elkartearekin hitzarmen bat lokal bat urririk honi uzteko Jules FERRY eskolaren baitan (BAIONAko Suprefeturan onartua 2009ko ekainaren 29an) ;
- EKODEPARTAMENDU ARTEKO ITSAS GAIETAKO ZUZENDARITZAarekin hitzarmen bat lokal batzuk urririk honi uzteko Récollets jabetzaren baitan (BAIONAko Suprefeturan onartua 2009ko ekainaren 22an) ;
- Behin-behineko okupazio hitzarmen bat molde prekario eta ezeztagarrian BULUMBArekin (BAIONAko Suprefeturan onartua 2009ko agorrilaren 18an) ;
- Behin-behineko okupazio hitzarmen bat molde prekario eta ezeztagarrian JMBS.A.R.L.arekin (BAIONAko Suprefeturan onartua 2009ko irailaren 7an) ;
- BAIONAKO FAMILIA LAGUNTZA KUTXAarekin hitzarmen bat diru laguntza bat lortzeko (BAIONAko Suprefeturan onartua 2009ko irailaren 16an) ;

- Helburu eta finantzatze / zerbitzu emate hitzarmen bat BAIONAKO FAMILIA LAGUNTZA KUTXArekin (BAIONAko Suprefeturan onartua 2009ko irailaren 16an) ;
- IRASTORZA Jauna, Aristide BRIAND eskolako Zuzendaria eta POP ENGLISH CREATIONS Elkartearekin hitzarmen bat eskola horren lokal batzuk erabiltzeko (BAIONAko Suprefeturan onartua 2009ko irailaren 28an).

3) Novelty karrika itsuaren herriaren jabetza : Salmenta Engaiamendua

Txostengilea : Auzapez Jauna

Auzapez Jaunak Herriko Kontseiluko kideei jakinarazten die Christophe SAVARIT Jaunak proposamen bat egin diola, Ziburuko Novelty karrika itsuan, AH 378 zenbakian katastrotua den herriko jabetza erosteko.

Auzapez jaunak zehazten du aurkeztua izan zaion antolaketa proiektuaren baitan, sozial izaera azkarreko 14 etxebizitzako programa batez ere osatua dela.

Auzapez jaunak zehazten du jabetza hau 310 000 euroko prezioan saldua izan daitekeela, eskatua izan den Zerga Zerbitzuen estimazioaren arabera.

Azalpen honen ondotik, eta erabaki ondoren, Herriko Kontseiluak :

- eraikin hori 310 000 euroko prezioan saltzea **ERABAKITZEN DU**,
- Auzapez Jaunari salmenta engaiamendu bat eta horri doazkion dokumentu guziak, besteak beste behin betiko salmenta akta izenpetzeko **BAIMENA EMATEN DIO**.
- Maître PAOLIren bulegoa, salmenta engaiamendu hori eta honi doazkion dokumentu guziak, besteak beste behin betiko salmenta akta idazteko **IZENDATZEN DU**.

Komentarioak :

MADRID Jaunak galdegiten du zergatik gizarte erakundeak ez diren kontsultatu.

Auzapez Jaunak azpimarratzen du jabetza hori O.D.64, PACT, eta COLi proposatuak izan zaizkiela. Ez du erakunde hauetatik batek ere operazio bat burutu nahi izan..

DUGUET Anderea :

2007ko abenduaren 12ko herriko kontseilua oroitarazten dugu, jabetza hori Association des Pupilles de l'Enseignement Publicari (Irakaskuntza Publikoko Umezurtzen Elkarte)erosi diogularik :

Auzapez Jaunak zehaztapenak ekartzen ditu erranez Eremuaren Zerbitzuak 235 000 €ko estimazio bat egin zuela jabetza horretaz, eta 14 000 €ko estimazioa urteko alokairurako.

Ikusiz zer/nolako berehalako interesa duen jabetza horrek Ziburu Herriarentzat, besteak beste Ziburuko ofizialeen jarduerak berraterbetzeari lotua dena, Auzapez Jaunak proposatzen du horren erostea, Elkarteak proposatzen duen prezioan, erran nahi baita 305 000 €.

Komentario desberdinen artean :

DUGUET Andereak galdegiten du zergatik ez duen Hirigintza Batzordeak dozier hori aztertu, Lalanne Jaunak azpimarratzen du ez zela neholako helmuga aldaketarik.

DUGUET Andereak galdegiten du norentzat izanen den lokal hori. Auzapez Jaunak zehazten du ofiziale multzo batek lokalak bilatzen zituela Ziburun.

MINTEGUI Jaunaren iritziz, proiektu hori ez da garbia.

Auzapez jaunak azpimarratzen du hobe zela jabetza hori erostea proiektu inmobiliario pribatu berri bat leku horretan sortzen ikustea baino.

Egun horretako deliberazioa irakurtzean, biziki gustukoak ditugu eztabaida horiek... eta errazki asmatzen dugu eraikin honen erosteko arrazoinak zoin diren...

Eta Mintegui Jaunak ez bazituen gauzak argiki ikusten 2007an, arrats honetan oraindik ilunagoak dira. Salmenta prezioa eremuen prezioaren estimazioaren araberakoa da eta etxebizitza sozial kopuru handi bat iragartzen zuen. Edo etxebizitza sozialak dira eta orduan zergatik ez erakunde onetsi batekin lan egin, edo ez dira halakoak.

Kontra bozkatuko dugu.

Auzapez Jaunak zehazten du legeak estimazio berri bat Eremuen Zerbitzuari eskatzera behartzen gaituela. Hastapenean, jabetza hau OLAIZOLA eta JAHOUEN Jaunen jardueren berraterbetzeko balioko zuen.

Azken hau liluratua zen hastapenean, baina, MADRID Jaunaren zerrendako kide zen lagun baten aholkuak entzun ondoren, ez du onartu Noveltyn kokatua izateko proposamena.

Auzapez Jaunak zehazten du aurkeztua izan zaion proiektuan Etxebizitza sozial konotazio azkarreko 14 bizitegi zeudela herrian, gizarteratze elkarte batzuen bidez lan egiten eta zailtasunean diren pertsoneri bereziki zuzenduak.

DUGUET, BAZERQUE, TAPIA Andereak, GOURAUD, MINTEGUI, MADRID Jaunek kontra bozkatzen dute.

ONARTUA

4) Ziburuko Herria « ASPOROTSTTIPI centre d'interprétation de la corniche basque » (« ASPOROTSTTIPI, euskal erlaitzaren interpretazio zentroa ») elkartean sartzea.

Txostengilea : Gouillardet Jauna

Auzapez jaunak adierazten die Herriko Kontseiluko kideei Laure GUILHEM Andereak, Akitaniako Itsasbazter Kontserbatorioko Ordezkarari axuranta denak, « ASPOROTSTTIPI centre d'interprétation de la corniche basque » (« ASPOROTSTTIPI, euskal erlaitzaren interpretazio zentroa ») elkarte berriaren estatutu proiektu bat helarazi diola.

Auzapez jaunak azpimarratzen du estatutu proiektu hau, Ziburu Herriko ordezkariak parte hartu izan duten lan bilkuren ondotik jarria izan dela.

Auzapez jaunak Herriko Kontseiluko kideei printzipiozko aldeko iritzia eman dezaten proposatzen du Ziburu Herriak elkarte berri horretan parte har dezan, eta aurkeztua den estatutu proiektua balidatzea, jakinez Herriko Kontseilua berantago, eta behin betiko erabaki

bat har dezan, elkarteko kideen diru mailako parte hartzeen kopurua ezaguna izanen delarik, eta, besteak beste, kide ezberdinen arteko banaketarena.

Azalpen horren ondotik, eta eztabaidatu ondoren, Herriko Kontseiluak :

- Ziburu Herria elkarte horretan sar dadin printzipiozko aldeko iritzi bat **EMATEN DU**,
- Estatutu proiektua, gorago aipatuak diren baldintzak betez gero, **ONARTZEN DU**.

AHO BATEZ ONARTUA

5) Herrien arteko Erabilerraztasun Batzordea : ordezkari baten izendatzea

Txostengilea : BERLAN Jauna

Auzapez Jaunak Herriko Kontseiluko kideei adierazten die Euskal Herri Hegoaldeko Herri Elkargoko Lehendakari Jaunarengandik gutun bat eskuratu duela. Horren bidez, Herrien arteko Erabilerraztasun Batzordearen lanetan parte hartzeko Ziburu Herriak ordezkari bat izendatzea eskatzen zaio.

Auzapez Jaunak Pierre BERLAN Jaunaren hautagaitza proposatzen du.

Azalpen horren ondotik, eta eztabaidatu ondoren, Herriko Kontseiluak :

- Pierre BERLAN Jauna, Herrien arteko Erabilerraztasun Batzordean Ziburuko ordezkari **IZENDATZEN DU**.

Oharrak :

DUGUET Anderea :

1) Herriak haren batzorde propioa sortu du 2008ko urriaren 28an eta ondokoa luke egin behar : « *jadantik dagoen koadro eraikia, bide sare, eremu publiko eta garrainen erabilerraztasuna zertan den aztertzea. Herriko Kontseiluan aurkeztua den urteko txosten bat burutzen du eta gaur egun dagoena erabilerraztasunean jartzen lagunduko duten proposamen guziak aurkezten ditu* ».

Diagnostikoa, 2006ko dekretuen arabera, **2009ko abenduaren 23ko** (erran nahi baita 3 urte berantago) egina izan behar zen.

Diagnostiko edo txosten hori ikus genezake CCSPBri helarazi aitzin ?

2) Zer segida izanen du horrek ? Ziburu herriak haren herriari buruzko behin betiko erabilerraztasun plana onartu beharko du edo hau CCSPBren gaitasunetan geldituko da ?

Auzapez Jaunak azpimarratzen du horren gaitasuna Herrien Elkargoak duela betetzen. Hala ere, elkargoko batzorde hau plantan jarria izan ondoren, Ziburuko herriak haren lana egingen du, besteak beste egin beharreko obra eta antolaketen mailan. Herrien Elkargoak ondoren, kide diren Herrien datu guziak uztartuko ditu dokumentu komun eta bakar bat idatzia izan dadin.

Estatua eta Herrien Elkargoaren zerbitzuen arteko elkarrizketen ondorioz, azken epea gibelatua da.

BERLAN Jaunak ez du bozketan parte hartzen.

ONARTUA

6) 2010eko egur moztea

Txostengilea : GOUAILLARDET Jauna

Auzapez jaunak Herriko Kontseiluko kideei Baionako Oihanetako Erakunde Nazionaleko Lurralde Adarraren Arduradun Andereak, Oihan Legediaren pean den Ziburu herrian, 2010ean egin beharreko mozketei buruz bidali gutuna irakurtzen die.

Azalpen horren ondotik, eta eztabaidatu ondoren, Herriko Kontseiluak ::

- Oihanetako Erakunde nazionalari, mozketa arautu gisa 2010 oinarri egoeran idatzia izatea **ESKATZEN DIO**
- Amerikako haritz gorri mozketa bat 4. lur-zatian, 1,54 hektaretan hedatua. Proposatutako helburua : salmenta blokean eta zutikakoa.
- Haltz basobera mozketa bat 2A (1,06 hektarea), 5A (0,53 hektarea) eta 9A (1,80 hektarea) lur-zatietan. Proposatutako helburua : salmenta blokean eta zutikakoa.

AHO BATEZ ONARTUA

7) Bide Berdea, Pirripitabide mugaz gaindiko proiektua

Txostengilea : M. LALANNE

GOURAUD jaunaren mintzaldia :

« Auzapez jauna, delibero honen gibelatzea helburutzat duen alde zuzeneko galdera pausatzen dugu (barne araudiko 17. artikulua).

2008ko urriaren 28an, Auzapez Jaunak zehazten zuen dozier honen burutzeko edo ez burutzeko azken erabakia, Departamendua eta Herriak bat eginez hartua izanen dela, azterketen emaitzaren ondorioz, Ziburuko Herriak proiektuan sartu beharko duen diru kopurua onartu ondoren eta Departamenduak eta Ziburuko Herriak hitzarmen berri bat izenpetu ondoren. Hitzarmen honek, besteak beste partaide publiko bakoitzaren diru mailako engaiamenduak finkatzen ditu.

Herriak ekarri beharko duen diru kopurua garrantzitsua dela ikusirik 75 000 €, eta, guk ezagutzen dugun proiekturik ez izanki, proiektu hau gai-ordenatik kendua izan dadin eskatzen dugu, ondokoa lortu arte :

- azterketen emaitza eskura dezagun,
- eta aitzinetik herriak jakin ahal izan dezan haren lurraldean gertatuko dena.

Ez diogu Kontseilu Orokorrari gure izenean zernahi egiteko ahalmenik utzi nahi. »

LALANNE Jaunak delibero proiektua irakurtzen du :

2008ko urriaren 28ko deliberoaren bitartez, Herriko Kontseiluak, Kontseilu Orokorrak, espainol entitate eta auzo hiriekin batera abian jarri duen Bide Berdea, Pirripitabide mugaz gaindiko proiektuan Herriak parte har dezan onartu du.

Kontseilu Orokorrak proposatzen du ZIBURUko itsas bazterrean pirripita eta oinezkoen zirkulazio lotura ezti bat burutzea, obratzaile gisa.

Kontseilu Orokorrak obrak 1 000 000 € ZK kostako dutela aurreikusi du eta nahi luke Herriak honen % 7,5a beregain har dezan, erran nahi baita, 75 000 €.

Azalpen horren ondotik, eta eztabaidatu ondoren, Herriko Kontseiluak :

- proiektu horretan, gorago aipatutako baldintzetan parte hartzea **ONARTZEN DU**,

Auzapez jaunari, egitasmo honi lotua den dokumentu oro izenpetzeko- **BAIMENA EMATEN DIO**.

Oharrak :

LALANNE Jaunak zehazten du Ziburu Herriak nahitaez 2009 urte bukaera aitzin deliberoa hartu behar duela, ez badu nahi partaide publikoen diru-laguntzak kenduak izan daitezzen.

BORDENAVE Jaunak orotarazten du Herriko Kontseiluak jadanik printzipiozko iritzia emana zuela aitzineko saio batetan. Garai hartan, Ziburu Herriko parte hartzea 1 000 000 €ko % 20koa izan behar zen. Gaur egun, parte hartze hori, % 7,50ekoa da, edo 75 000 €koa, 200 000 ordez.

DUGUET, BAZERQUE, TAPIA Andereek, GOURAUD, MINTEGUI Jaunek ez dute bozkutzen.

ONARTUA

8) Euskararen sustapenerako Hitzarmena

Txostengilea : IBARLOZA Jauna

Auzapez Jaunak, Euskal Herri Hegoaldeko Herri Elkargoak eta Euskararen Erakunde Publikoak (O.P.L.B./E.E.P.) helarazitako euskararen sustapenerako hitzarmen proiektua aurkezten die Herriko Kontseiluko kideei.

Hitzarmen honen helburua da euskararen erabilera eta presentzia sustatzea herriko etxeko jarduera desberdinetan eta Herriak publikoarentzat eskaintzen dituen zerbitzuetan.

Hitzarmen hau hiru urteko izenpetua izanen da, ondotik errepikatzeko kontratu baten bidez.

Azalpen horren ondotik, eta eztabaidatu ondoren, Herriko Kontseiluak :

- euskararen sustapenerako hitzarmen hau **ONARTZEN DU**,

- Auzapez Jaunari honen izenpetzeko **BAIMENA EMATEN DIO**.

Oharrak :

TAPIA Anderea :

Gure hizkuntzari dagokionez oinarrizko galdera hauxe da : gure mintzaira salbatu nahi ote dugu, eta horretarako funtsezko neurriak hartzeko prest ote gira ?

Borondate hori badela sinitsi nahi genuke baina duda haundiak baditugu hitzarmen hau eskasa atxematen baitugu. Geroxeago zehaztuko dut zergaitik. Ikusiz orain dela 4 urte egina izan den diagnostikoa, lan frango badela argi da eta horretarako gure herrian dinamika bat sortzeko behar haundia ikusten dugu. Bertzalde jakinarazi nahi dugu beti prest garela gure hizkuntzaren alde lan egiteko.

Ez naiz gehiago luzatuko.

Oinarrizko galdera hauxe da :

EUSKARA gure mintzaira zinez salbatu ote nahi dugu ?

Prest ote gira Ziburun funtsezko neurriak hartzeko gure hizkuntza bizi dadin, eguneroko bizian erabilia izan dadin, herriko etxea eta honen zerbitzuen baitan.

Borondate hori ba ote da ?

Sinetsi nahi genuke. Baina orain arte horren frogatzeko egin ekintzak eskasak dira. Gauza anitz egina izan da baina ez dira sekula desagertzekotan den hizkuntza baten heinekoak.

Euskal konfederazioak herriko etxearen baitan egin diagnostikoak erakusten du saila gehienetan, euskararen presentzia % 0koa dela.

Lan frango bada egiteko !

Deus ez da gertatu duela 4 urte izenpetua izan den lehen hitzarmenaren ondotik. Diagnostikoa baizik ez da egina izan ; ez da helbururik zehaztu, neurri konkreturik hartu, eperik finkatu.

Izenpetua izan den hitzarmena ez da errespetatua izan : 4 urte galduak.

Gaur egun hitzarmen berri bat dugu, aldi honetan EEP (Euskararen Erakunde Publikoa) eta herri elkargoarekin.

Gure hizkuntza sustatzeko gogoia zinezkoa bada, finkatutako helburuak handiagoak izan behar lukete bai eta gaur egungo egoerari berehalako aldaketa bat ekar ditzaketen neurriek ere.

1- Hizkuntza bat bizi dadin erabili behar da.

Herriak horretarako euskal lokutoreak beharrezkoak ditu herriko etxe eta haren zerbitzuetan. Batzuk formakuntzan dira, horretaz pozten gara baina engoitik, langile berriak hautatzeko orduan, diploma berdinarekin **euskaldunari eman beharko litzaioke lehenetsuna** bederen haurtzaro, gazteria, harrera eta komunikazio gisako arloetan.

Alta, hitzarmenean, finkatua den helburua ondoko hau da : « euskara beharren arabera kontutuan hartua da ». Helburu hau gure gustuko, ez da aski argia. Behar horiek zehaztu behar dira, bestenez nola neurtzen ahalko dira helburu hauek urte baten buruan ?

Beste neurri bat da euskarazko testuak sartzea herriko aldizkarian eta herriko etxearen web gunean. Hor ere neurri ona da baina proportzioa ez da zehaztua.

Lauso horrekin nahikunde eskas bat aurreikusten dugu.

2- Bestalde, hitzarmen hau ongi eramateko, interesatuak diren hautetsi eta herritar guziei **irekia izanen zaien lan talde bat sortzeko beharra** ikusten dugu.

Gure hizkuntzaren arazoa ez da bakarrik gehiengoaren hautetsi euskaldunen egitekoa. Dinamika bat sortu behar da ziburutarrak sentsibilizatzeko eta horretarako ekintzak plantan jarri behar dira.

Herritarrek hitzarmen honen edukia ezagutu behar dute eta hedatu behar da. Lan guzi hori egitekoa da. Ez da lan erraza, bolondres guziei ongi etorria eskaini beharko litzaieke. Ez dugu horrelakorik sentitu.

3- Gainera, guretzat, **hitzarmen honen izenpetzea ekintza garrantzitsua da.** Ekimen horrek berak, herriko kontseilu bat merezi du. Inplikatuak diren partaideek hitza hartuko zuketena eta horrela hurbildutako pertsonak pixka bat gehiago informatu eta sentsibilizatu ditzakete.

Zorigaitzez, beste behin ere gure hizkuntza sustatzeko, eta usaian baino gehiago, eremu zabalago bat eskaintzeko aukera galtzen dugu.

Honen aldeko kanpaina baten abiapuntua izaten ahal zen.

Bukatzeko, Auzapez jauna, sinetsi nahi dugu euskarari zor zaion lekua eskaintzeko zinezko borondatea duzula. Espero dugu zure ekintzek hori frogatuko digutela.

Lehen behar bada komunikazio arduradun euskaldun bat kontratatzea izanen da.

Nork bestenaz berak baino hobeki sor lezake dinamika hori gure herrian. Hori litzateke hitzarmenarekin koherentea daitekeen lehen ekintza esanguratsua.

Zugan kontatzen dugu Auzapez jauna.

IBARLOZA Jaunak dio harritia dela TAPIA Andreak duen doinu agresiboaren aitzinean eta hautetsiei molde gisakoago batekin mintzatzea galdegiten dio. Garrantzitsuena dozier horretan, denek finkatu dugun helburura buruz aitzinatzea da.

AHO BATEZ ONARTUA

III/ Finantzako gaiak

Txostengilea : LOLOM Jauna

1) « Euri urak » kompetentzia Herriarteko Sindikatuari eskualdaketa DONIBANE LOHIZUNE eta ZIBURU Herrien Hornikuntza eta Antolaketarako

« Euri urak » kompetentzia, DONIBANE LOHIZUNE eta ZIBURU Herrien Hornikuntza eta Antolaketarako Herriarteko Sindikatuari eskualdaketa markoan, komenigarria da aktiboa eta pasiboa M 14an aurreikusia den aurrekontutik kanpoko eskema batetan.

Inbestizamendu saila - Xahutzeak	
1641.01. art. Maileguak eurotan	201 766,33
2423.01. art Herrien arteko lankidetzaren erakunde publikoak	356 649,78
Inbestizamendu xahutzeak orotara	558 416,11
Inbestizamendu saila - Sartzeak	
21758 .01. art Beste instalazio, material eta tresneria tekniko...	229 805,03
21538 .01. art Beste sareak	126 844,75
2492 .01. art kompetentzia transferentziaren markoan eskupean uztea	201 766,33
Inbestizamendu sartzeak orotara	558 416,11

Auzapez Jaunak azpimarratzen du Crédit Agricolean egin 51032622629 zenbakia duen mailegua, Sindikatuak bere gain hartuko duela. 2009ko urtarrilaren 1ean, 201 766,33 €ko diru zama gelditzen zen itzultzeko. Sindikatuak du 2009ko abenduaren 7ko mugaeguna ordainduko, bai eta ondokoak ere, mailegua bukatu arte.

Azalpen honen ondotik, 2009ko urriaren 28an bildu den finantzetako Batzordearen iritzia onduz eta deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak :

- Euri uren kompetentziari lotuak diren aktiboa eta pasiboaren eskualdaketa, gorago aurkeztu bezala **ONARTZEN DU**,
- Gorago aurkeztuak diren idazpenak erregistratzeko diruzain nagusiari **BAIMENA EMATEN DIO**,
- aktiboa eta pasiboaren eskualdaketarako beharrezkoa daitekeen edozoin akta izenpe dezan Auzapez Jaunari **BAIMENA EMATEN DIO**.

AHO BATEZ ONARTUA

2) France Télécom : Bideetako Eremu Publikoaren okupatzeko karga

2005eko abenduaren 27ko dekretuak zehazten du France Télécomek bideetako eremu publikoaren okupatzearen truke zor dituen kargen diru kopurua.

Auzapez Jaunak azpimarratzen du legeak finkatzen dituela kolektibitatei inposatzen zaizkien gehienezko kargak eta aldi oro, urtarrilaren 1ean emendatzen direla.

Auzapez jaunak proposatzen du gehienezko kargak onartzea, dekretuaren aplikapenak dioena bezala eta zehazten du, gainera, 2009 urterako, bideetako eremu publikoaren okupatzeko gehienezko kargak hauexek direla :

- aire-arteria : 47,34 €/km
- lurpeko arteria : 35,51 €/km
- lurrari finkatua : 23,67 €/m²

Karga, ondotik, France Telecomen urtarrilaren 1eko eskaini okupatze aldarrikapenen arabera kalkulatu da.

Azalpen honen ondotik, 2009ko urriaren 28an bildu den finantzetako Batzordearen iritzia
ondorioz eta deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak :

- gehienezko kargen aplikazioa, gorago azaldu bezala **ONARTZEN DU**.

AHO BATEZ ONARTUA

3) Sainte Thérèse Etxegunearen aitzin-kontua : Aldaketa erabakia

Auzapez jaunak Herriko Kontseiluko kideei adierazten die, operazioaren aitzinamendua kontutan harturik, komeni dela ondoko erabaki aldatzailea hartzea :

Ibilmolde Saila :

Inputazioa	Izena	Kopurua
60 315.01	Antolatu beharreko lurren izakinen aldakuntzak	- 470 923,88
608 .01	Antolaketa fasean diren lur-zatietan met xahutzeak	15 897,00
6522.01	Soberakina aitzinkontu nagusira bidali	- 143 620,00
66111.01	Mugaegunearan ordaindu interesak	- 13 359,24
66 112.01	Interesak- ICNERi lotzea	13 800,12
Ibilmolde xahutzeak orotara		- 598 206,00
60 315.01	Antolatu beharreko lurren izakinen aldakuntzak	15 897,00
7015.01	Antolatuak diren lur-zatien salmentak	- 630 000,00
796.01	Finantza karguen eskualdaketa	15 897,00
Ibilmolde sartzeak orotara		- 598 206,00

Inbestizamendu saila :

Inputazioa	Izena	Kopurua
1641.01	Maileguak	- 460 000,00
16874.01	Herria (Aurrerakin itzulgarria)	- 10 923,88
315.01	Antolatu beharreko lur zatiak	15 897,00
Inbestizamendu xahutzeak orotara		- 455 026,88
16874.01	Herria (Aurrerakin itzulgarria)	15 897,00
315.01	Antolatu beharreko lur zatiak	- 470 923,88
Inbestizamendu sartzeak orotara		- 455 026,88

Azalpen honen ondotik, 2009ko urriaren 28an bildu den finantzetako Batzordearen iritzia
ondorioz eta deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak :

- Erabaki aldatzailea gorago azaldu bezala **ONARTZEN DU**.

AHO BATEZ ONARTUA

4) Herriaren Aitzinkontu Nagusia : Erabaki aldatzailea

Auzapez jaunak Herriko Kontseiluko kideei adierazten die, « Sainte Thérèse » etxegune operazioaren aitzinamendua kontutan harturik, komeni dela ondoko erabaki aldatzailea hartzea :

Ibilmolde saila :

Inputazioa	Izena	Kopurua
023.01	Igorpena Inbestizamendu sailera	- 143 620,00
Ibilmolde xahutzeak orotara		- 143 620,00
7551.01	Aitzinkontu erantsien soberakinak	- 143 620,00
Ibilmolde sartzeak orotara		- 143 620,00

Inbestizamendu saila :

Inputazioa	Izena	Kopurua
2138.01	Beste eraikuntzak	- 15 897,00
27638.01	Beste erakunde publikoak	15 897,00
Inbestizamendu xahutzeak orotara		0,00
021.01	Ibilmolde sailaren igorpena	- 143 620,00
1641.01	Mailegua Eurotan	143 620,00
Inbestizamendu sartzeak orotara		0,00

Azalpen honen ondotik, 2009ko urriaren 28an bildu den finantzetako Batzordearen iritziaren ondorioz eta deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak :

- Erabaki aldatzailea gorago azaldu bezala **ONARTZEN DU**.

AHO BATEZ ONARTUA

5) Gazte Saileko Aitzinkontu berezia : diru-laguntza baten emakida

Auzapez Jaunak Herriko Kontseiluko kideei adierazten die AMESTOY Andereak 500 €ko diru-laguntza eskaera bat helarazi diola 2012 Londresen gertatuko diren Joko Olinpikoetan parte hartzeko segitzen duen prestakuntzan laguntzeko.

Auzapez Jaunak zehazten du AMESTOY Andereari eskatutako laguntza eman ahal izateko, komeni dela ondoko erabaki aldatzailea hartzea gazteria aitzinkontuan, jakinez kredituak gazte sailaren Aurrekontuan idatziak direla :

Ibilmolde saila :

Inputazioa	Izena	Kopurua
6288.422	Beste kanpo zerbitzuak	- 500,00
6574.422	Ibil Diru-lag elka eta beste zuzen prib pertsoneri	500,00
Inbestizamendu sartzeak orotara		0,00

Azalpen honen ondotik, 2009ko urriaren 28an bildu den finantzetako Batzordearen iritzia
ondorioz eta deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak :

- AMESTOY Andereari 500 €ko laguntza bat **ESLEITZEN DIO**.
- Aldaketa erabakia gorago azaldu bezala **ONARTZEN DU**.

AHO BATEZ ONARTUA.

6) 2009ko martxoaren 22ko udaberriko ibilaldian parte hartzea

Auzapez Jaunak, oroitarazten die Herriko Kontseiluko kideei udaberriko ibilaldia 2009ko martxoaren 22an gertatu dela. Ziburuko Besta Komiteak du ekitaldi hori antolatzen eta fresa guztiak aitzinatzen ditu parte hartzen duten herriengandik, erran nahi baita DONIBNE LOHIZUN, BIRIATU, HENDAIA, URRUÑA eta ZIBURUengandik berreskuratu aitzin.

Azken kostua 2 482,57 €koa da eta herri bakoitzari 496,51 € eskatzen zaio.

Auzapez Jaunak proposatzen du 496,51 € Ziburuko Beta Komiteari ematea.

- Ziburuko Besta Komiteari 496,51 €. ematea **ERABAKITZEN DU**

AHO BATEZ ONARTUA.

LALANE Jaunak Herriko Kontseiluko kideak abisatzen ditu heldu den urtean, ibilaldia, eskualdeko hauteskundeak direla eta, martxoaren 20ra aitzinatua izanen dela.

7) Gida Praktikoa 2010en prezioak

Auzapez Jaunak Herriko Kontseiluko kideei, 2010eko Gida Praktikoaren argitalpena dela eta inprimategiko xahutzeak arintzeko, argitalpen horretan sartzen diren publizitate esparruak ondoko prezioetan saltzea proposatzen die :

- orri 1/6 : 73 €
- orri 1/3 : 140 €
- orri 2/3 : 275 €
- orri 1 : 420 €

Azalpen honen ondotik, 2009ko urriaren 28an bildu den finantzetako Batzordearen iritzia
ondorioz eta deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak :

- Gorago aurkeztutako prezioak **ONARTZEN DITU**.

AHO BATEZ ONARTUA.

8) Kreditu irekitzea

Auzapez jaunak Herriko Kontseiluko kideei adierazten die hiriak, beste urteetan bezala, diruzaintza kreditu bat ireki dezakeela eta Crédit Agricole Mutuel Pyrénées Gascogne-ren eskaintza hautatua izan daitekeela.

Kreditu irekitze honi jarriak izan diren baldintza nagusiak, ondokoak dira :

- Kopurua : 450 000 €
- Dozier gastuak : 100 €
- Interes tasa : Euribor 3 hilabete + % 1,00
- Ez erabiltzearen komisioa : ez da

Azalpen honen ondotik, 2009ko urriaren 28an bildu den finantzetako Batzordearen iritzia
ondorioz eta deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak :

- Kreditu irekitze proposamena gorago azaldua den bezala **ONARTZEN DU**,
- Auzapez jaunari, gai honi lotuak diren dokumentu guziaz izenpetzeko **BAIMENA EMATEN DIO**.

AHO BATEZ ONARTUA.

9) Erretako ibilgailuaren kalte ordaina

Auzapez Jaunak Herriko Kontseiluko kideei oroitarazten die 2009ko uztailaren 24an, polizia municipalaren ibilgailua errea izan dela. Egun hartan laneko zen OLAIZOLA Jean Martin herriko langilearen ibilgailua ere osoki erre da, poliziaren ibilgailuaren ondoan aparkatua baitzen.

Gure segurantzaren kontratuak OLAIZOLA Jaunaren ibilgailuak jasandako kalteak estaltzen ez dituenek, Auzapez jaunak proposatzen du 1 000 € beari ematea kalte ordain gisa.

Azalpen honen ondotik, 2009ko urriaren 28an bildu den finantzetako Batzordearen iritzia
ondorioz eta deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak :

- 1 000 € OLAIZOLA Jean Martin Jaunari kalte ordain gisa ematea **ERABAKITZEN DU**.

Oharrak :

DUGUET Anderea :

1. Nahitara egindako ekintza izan ote da ? Auzapezaren erantzuna : bai.
2. Hala bada, salaketarik aurkeztu ote duzu eta zertan da inkesta ? Auzapezaren erantzuna : bai.
3. Nun gertatu da ezbeharra ? Auzapezaren erantzuna : Herriko Etxeko Tailerretan.
4. Beste kalterik izan ote da ? Auzapezaren erantzuna : ez.
5. Nork ordaindu du polizia municipalaren ibilgailua ? Auzapezaren erantzuna : Herriko Etxeko segurantzak.
6. Zenbat ordaindu du Olaizola Jaunaren segurantzak ? Auzapezaren erantzuna : 0 €.

AHO BATEZ ONARTUA.

10) Leku eskubideak, bide eskubideak, iragarki era aparkatze eskubideak : 2010eko prezioak

Auzapez jaunak 2010eko proposatzen du leku, bide, iragarki eta aparkatze eskubideen prezioak hautatzea, erantsia den arbelean azalduak diren bezala.

2009ko abenduaren 3an bildu den finantzetako Batzordearen iritzia onduz eta deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak :

- Proposatutako diren prezioak **ONARTZEN DITU**

AHO BATEZ ONARTUA.

11) 2010eko herriko prezio orotarikoak

Auzapez jaunak 2010 urterako hainbat prezio aplikatzea proposatzen du erantsia den arbelean azalduak diren bezala.

2009ko abenduaren 3an bildu den finantzetako Batzordearen iritzia onduz eta deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak :

- Proposatutako diren prezioak **ONARTZEN DITU**

Oharrak :

MADRID Jaunak zehazten du C puntuaren aurka bozkatuko duela, krisi garai honetan salerosleei aplikatzen zaizkien prezio emendatzearen kontra delako.

ONARTUA.

12) Ostatatzerik gabeko Aisialdi Zentroa : 2010eko prezioak

Auzapez Jaunak 2010 urterako ostatatzerik gabeko aisialdi zentrorako prezioak horrela onartzea proposatzen du :

Egunerako prezioa	2010eko prezioa		
	Haur 1	2 haur	3 haur
Q – 440	8,49	16,12	22,91
Q 441tik 675era	10,27	19,51	27,72
Q 676tik 875era	11,10	21,08	29,96
Q + 875	12,48	23,74	33,72
Ateraldiak ZIBURU eta URRUÑAn	13,87	26,36	37,45
Egun erdirako prezioa apairuarekin	2010eko prezioa		
	Haur 1	2 haur	3 haur
Q – 440	5,01	9,51	13,52
Q 441tik 675era	5,90	11,21	15,93
Q 676tik 875era	6,31	12,00	17,04
Q + 875	7,00	13,45	18,92
Ateraldiak ZIBURU eta URRUÑAn	7,70	14,63	20,79
Egun erdirako prezioa apairurik gabe	2010eko prezioa		
	Haur 1	2 haur	3 haur
Q – 440	3,49	6,61	9,39
Q 441tik 675era	4,37	8,30	11,80
Q 676tik 875era	4,78	9,08	12,91
Q + 875	5,48	10,40	14,79
v	6,17	11,73	16,66

Antolatutako akanpaldietarako : 10 €ko gehigarri bat gauka eta haurka.

Profesional diplomatu batzuen presentzia eskatzen duten gazte aretoko aktibitateetarako : 5 €ko gehigarri bat gauka eta haurka.

2009ko abenduaren 3an bildu den finantzetako Batzordearen iritzia onduz eta deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak :

- Proposatutako diren prezioak **ONARTZEN DITU**

AHO BATEZ ONARTUA.

13) 2010eko Herriko Aldizkaria : Irargarkien Prezioak

Auzapez jaunak, herriko aldizkariaren argitalpenarekin batera, publikazioetan sartzen diren iragarki esparruak ondoko prezioetan saltzea proposatzen du :

Argitalpen kopurua	Argitalpen 1 urtean	2 argitalpen urtean
Barneko orriak		
orri 1/16	78,00	71,76
orri 1/8	125,00	115,00
orri 3/16	173,00	159,16
orri 1/4	220,00	202,40
orri 1/2	355,00	326,60
orri 1	630,00	579,60
Estalgiko AZK		
orri 1/16	95,00	87,40
orri 1/8	151,00	138,92
orri 3/16	208,00	191,36
orri 1/4	265,00	243,80
orri 1/2	428,00	393,76
orri 1	756,00	695,52

2009ko abenduaren 3an bildu den finantzetako Batzordearen iritzia onduz eta deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak :

- Proposatutako diren prezioak **ONARTZEN DITU**

AHO BATEZ ONARTUA..

14) Eskoletako jantegiak : 2010eko prezioak

Auzapez jaunak proposatzen du eskolako jantegiaren prezioak horrela finkatzea :

Diru sarrera saila etxebizitza fiskalka	Apairuaren prezioa 2009 urtea	Apairuaren prezioa 2010 urtea
Ama eskola		
1 €tik 2 134ra barne	1,86	1,90
2 135 €tik 3 201era barne	2,27	2,32
3 202 €tik 3 903ra barne	2,70	2,75
3 904 € eta gehiago	3,10	3,16
Lehen maila		
1 €tik 2 134ra barne	1,86	1,90
2 135 €tik 3 201era barne	2,27	2,32
3 202 €tik 3 903ra barne	2,70	2,75
3 964 €tik 4 877ra barne	3,10	3,16
4 878 € eta gehiago	3,95	4,03
Irakasleak		
	4,35	4,44

2009ko abenduaren 3an bildu den finantzetako Batzordearen iritzia ondoz eta deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak :

- Proposatutako diren prezioak **ONARTZEN DITU**

Oharrak :

MADRID Jaunak zehazten du emendatzearen kontra bozkatuko duela. Nahiagoko zukeen Egonaldi Zergaren emendatze bat.

Auzapez jaunak zehazten du zerbitzu hori defizitarioa dela eta Egonaldi Zergaren prezioa auzoko herriekin batera finkatua dela. DUBARBIER Andreak adierazten du ere diru kopuru handia hornikuntzarako xahutu dela lotura hotzeko zerbitzu bat segurtatzeko.

DUGUET Anderea:

Zertan dira haurtzaindegiko prezioak ? Galdera berdina pausatu dut jaz ez zirelako gehiago gai-ordenan agertzen.

Auzapez Jaunak erantzuten du haurtzaindegiko prezioak CAF/FLKarekin finkatuak direla.

ONARTUA

15) 2010eko jatorrizko aitzinkontua : Diru laguntza aurrerakina

Auzapez jaunak Herriko Etxeko kideei adierazten die, Herriko Gizarte Laguntza Zentroak, Turismo Bulegoak eta Besta Komiteak jaz bezala 2010ean lortuko duten diru laguntzatik diruzaintza aurrerakin bat eskatzen dutela.

Auzapez Jaunak ondokoa onartzea proposatzen du :

- o Ziburu Hiriko Gizarte Laguntza Zentroari, 2010ean emana izanen zaion diru laguntzatik 50 000 €ko aurrerakin bat.
- o Ziburuko Turismo Bulegoari, 2010ean emana izanen zaion diru laguntzatik 60 000 €ko aurrerakin bat.
- o Ziburuko Besta Komiteari, 2010ean emana izanen zaion diru laguntzatik 30 000 €ko aurrerakin bat.

Auzapez jaunak zehazten du xahutze mailan bezain bat sartzeetako kredituak 2010eko jatorrizko aitzinkontuan sartuak izanen direla ibilmolde sailean.

2009ko abenduaren 3an bildu den finantzetako Batzordearen iritzia ondoz eta deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak :

- Hiriko Gizarte Laguntza Zentroari, Turismo Bulegoari eta Besta Komiteari, gorago azaldu bezala, diru laguntza aurrerakin bat ematea **ERABAKITZEN DU**

AHO BATEZ ONARTUA..

16) Inbertsio kredituen laurdenaren irekitzea

Auzapez jaunak Herriko Kontseiluko kideei adierazten die hornitzaileen ordainketaren jarraipena segurtatzeko 2009 urtea eta 2010 aitzinkontu urtearen artean, komeni dela inbestizamendu xahutzeak irekitzea 2010 urtearen gainean.

Indarrean den legediaren arabera, kreditu hauek gehienik aitzineko aitzinkontu urtean irekiak ziren kredituen % 25ekoa izan behar dira.

Auzapez jaunak inbestizamendu kredituak ondotik azaldua den bezala irekitzea proposatzen du :

Artikulua	Izena	Funtzioa	Kopurua
2135	Instalazio orokorrak, Eraikuntzen antolaketa	01	37 600
2138	Beste eraikuntzak	01	363 600
2158	Beste instalazio, material eta tresneria teknikoak	01	21 200
2182	Garraio materiala	01	6 000
2183	Bulegoko mat eta material informatikoa	01	23 400
2184	Altzairuak	01	2 800
2188	Beste gorputz ondasun ibilgetuak	01	5 900
2313	Eraikuntza	01	45 600
2315	Instalazioak, material eta tresneria teknikoak	01	142 500

2009ko abenduaren 3an bildu den finantzetako Batzordearen iritzia ondu eta deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak :

- urteko inbestizamendu kredituen laurdena gorago azaldua den bezala irekitzea **ERABAKITZEN DU.**

AHO BATEZ ONARTUA..

17) Auzapezen Kongresua : xahutzeen ordainketa

Auzapez jaunak Herriko Kontseiluko kideei adierazten die Frantziako Auzapezen Kongresuan izan dela joan den azaroaren 17, 18 eta 19an eta bidai horrekin izan dituen xahutzeak ordaintzea komeni dela, erran nahi baita 494,87 €.

2009ko abenduaren 3an bildu den finantzetako Batzordearen iritzia ondu eta deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak :

- Auzapez jaunari, 2009ko Frantziako Auzapezen Kongresura joateak sortu dituen xahutzeak, 494,87 € ordaintzea **ERABAKI DU.**

Auzapez Jaunak ez du bozketan parte hartzen.

ONARTUA

18) 2010eko Egonaldi Zergaren prezioak :

Urte guziz bezala, Herriko Kontseiluari egonaldi zergaren prezioez deliberatzea proposatzen zaio, zehaztuz urteko zerga bat dela eta proposatuak diren prezioetan Kontseilu Orokorrari eman behar zaizkion % 10ak sartua direla.

<u>Sailak</u>	<u>Sailkapena</u>	<u>Prezioak</u>
Hotel, Turismo Egoitzak	4 izar	1,10
	3 izar	0,88
	2 izar	0,66
	izar 1	0,55
	0 izar	0,33
Kanpinak, opor herriak, etxeko ostatu ganbarak eta beste		0,33
Villa eta altzarituak	1. kategoria	0,33
	2. kategoria	0,55
	3. kategoria	0,66
	4. kategoria	0,88
	Ez sailkatuak	1,10

Prezio hauek ez dira aldatu 2009 urteari konparatuz.

Herriko Kontseiluko kideei gorago azaldu bezala egonaldi zergaren prezioak onartzea proposatzen zaie.

2009ko abenduaren 3an bildu den finantzetako Batzordearen iritzia ondu eta deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak :

- 2010eko Egonaldi Zergaren prezioak gorago azaldu bezala **FINKATZEN DITU**.

AHO BATEZ ONARTUA..

19) Euskal Herriko PACT-CDHAR : Diru laguntza eskaera

Auzapez jaunak Herriko Kontseiluko kideei adierazten die Euskal Herriko PACT-CDHAR elkarteak diru laguntza eskaera bat helarazi diola, tratatutako dozierren instrukzio kostuetan parte hartzeko.

Auzapez jaunak 460 € ematea proposatzen du, kopuruhonek Euskal Herriko PACT-CDHAR elkarteak 5 dozier tratatzeko baliatua izanen da.

Gorago adostuak izan diren kopuruak helarazteko,

2009ko abenduaren 3an bildu den finantzetako Batzordearen iritzia ondu eta deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak :

- Ondoko aldaketa erabakia **ONARTZEN DU** :

Ibilmolde saila : (6. DM)

Ibilmolde saila : Xahutzeak			
Artikulua	Funtzioa	Izena	Kopurua
6574	01	Dir.Ibil.elk.bes.era.Zu.pribatu	460
658	01	Kudeaketa arruntaren kargu desberdinak	- 460

AHO BATEZ ONARTUA..

20) Pagatuzko aparkalekua

Auzapez jaunak Herriko Kontseiluko kideei oroitarazten die, 2002ko ekainaren 28ko deliberoaren bidez, pagatuzko aparkalekua plantan jartzea erabaki zela eta zerbitzu hau herriko zerbitzuek ustiatzea.

Gaurko prezioak 2003ko maiatzaren 7an hartu deliberazioak finkatu ditu. Auzapez Jaunak hauen berrikustea eta 2010eko urtarrilaren 1etik goiti ondoko moldean gelditzea proposatzen du :

Hiri Barneko Gunea :

€ 1 orduko, egunean 20 minutako ordaindugabeko bi une hartzeko aukerarekin, ekainaren 30etik urtarrilaren 1era eta urriaren 1etik abenduaren 31ra doazen garaietako,

1,20 € orduko, egunean 20 minutako ordaindugabeko bi une hartzeko aukerarekin, uztailaren 1etik irailaren 30era doan garaieko.

Hondartzen Gunea :

1.30 € orduko, urriarik bosgarren ordutik goiti uztalearen 1etik irailaren 30era doan garaierako.

Aplikatu diren egun eta ordutegiak ondokoak dira :

Hiri Barneko Gunea : egun guziz igande eta besta egunetatik kanpo, 9:00etatik 12:00etara eta 14:00etatik 19:00etara.

Hondartzen Gunea : egun guziz igande eta besta egunak barne 9:00etatik 19:00etara.

2009ko abenduaren 3an bildu den finantzetako Batzordearen iritziaren ondorioz eta deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak :

- prezioak gorago azaldu bezala **ONARTZEN DITU**.

Oharrak :

DUGUET Anderea :

Finantza batzordean, elbarrituak diren pertsonentzako aparkalekuaren ordainketari buruzko galdera pausatu dut, berretsi izan zait pertsona hauek ez zutela aparkalekua ordaintzen gune

erreserbatuetan. Eta leku erreserbatu horiek jadanik okupatuak diren kasuan, posible daitekea ordainketa arintze bat aplikatzea inguruko herrietan gertatzen den bezala.

Auzapez Jaunak baieztatzen du.

MADRID Jaunak nahi luke Ziburutarrei urteko aparkaleku harpidedun karta bat eman ziezaien. Auzapez jaunak adierazten du galdera hau jadanik aipatua izan zela baina berriz azter genezakeela.

DUGUET Andereak, batzorde bilkuretara doazen hautetsiei erreserbatutako aparkaleku bat lortzea posible denez galdegiten du.

Auzapez Jaunak ezezko borobila ematen du.

MADRID Jaunak ez du bozkatzen.

ONARTUA

21) Gizarte jabetzea : Herriko etxeko laguntza

Auzapez jaunak oroitarazten du, Herriko Kontseiluak 2007ko abenduaren 12 eta 2008ko urriaren 28ko deliberoen bitartez, jabe izateko etxebizitza sozial bat erosten duten familiei diru laguntza bat eskaintzea erabaki zuela, H.L.M./A.N.B erakunde batek Ziburu Herrian buruturiko programa baten baitan.

Laguntza hau ondoko baldintzetan emana den diru laguntza forfatario moduan gelditua izan zen :

- 1. Mota : 210 €, erran nahi baita 105 € urteka,
- 2. Mota : 250 €, erran nahi baita 125 € urteka,
- 3. Mota : 290 €, erran nahi baita 145 € urteka,
- 4. Mota : 350 €, erran nahi baita 175 € urteka,
- 5. Mota : 460 €, erran nahi baita 230 € urteka.

Auzapez jaunak proposatzen du onuradunen ondoko zerrenda gelditzea :

Gizarte jabetza : Résidence IBIRY

Diru laguntzaren onuraduna	Etxebizitza motak	Diru laguntzaren kopurua	2009ko prima	2010eko prima
Carcelen Anderea	T2	250	125	125
Dupuch Anderea	T2	250	125	125
Gomez Anderea	T2	250	125	125
Itxassa Anderea	T2	250	125	125
Michelena Anderea	T2	250	125	125
San Sébastian Anderea	T2	250	125	125
Moustirats Anderea	T2	250	125	125
Alday Jauna	T2	250	125	125
Athea Jauna	T2	250	125	125
Beristain Jauna	T2	250	125	125
Guecaimburu Jauna	T2	250	125	125
Montagut Jauna	T2	250	125	125
Ugartemendia Jauna	T2	250	125	125
Barnabé Anderea& Del Rio Jauna	T3	290	145	145
Da Veiga Anderea & Urrutia Jauna	T3	290	145	145
Darrigues Anderea & Elouard Jauna	T3	290	145	145
Gamon Anderea eta Barthe Jauna	T3	290	145	145
Hiriart Anderea	T3	290	145	145
Huger Anderea	T3	290	145	145
Koussa Anderea eta Jourdes Jauna	T3	290	145	145
Marquette Anderea & Warchol Jauna	T3	290	145	145
Queinnec Anderea & Baudry Jauna	T3	290	145	145
Sanchez Anderea & Renaud Jauna	T3	290	145	145
Boudon Jaun-Andereak	T3	290	145	145
Lopez Labandibar Jaun-Andereak	T3	290	145	145
Darroquet Anderea & Rouet Jauna	T3	290	145	145
Landa Jaun-Andereak	T3	290	145	145
Jacono Anderea	T3	290	145	145
Pateau Coupeau Anderea	T3	290	145	145
Pepeder Anderea & Djaroun Jauna	T4	350	175	175
Cuevas Anderea & Alandry Jauna	T4	350	175	175
Julien Anderea & Toral Jauna	T4	350	175	175
Eteve Jaun-Andereak	T4	350	175	175
Creton Jaun-Andereak	T4	350	175	175

Gueneau Anderea & Hureau Jauna	T4	350	175	175
OROTARA		9 990 €	4 995 €	4 995 €

Gorago onartuak izan diren diru kopuruak igortzeko,

2009ko abenduaren 3an bildu den finantzetako Batzordearen iritziaren ondorioz eta deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak :

- ondoko erabaki aldatzailea **ONARTZEN DU** :

Ibilmolde saila : (7. DM)

- 6745. art – 01 Funtzioa : Perts diru laguntza Zuz pribatua : + 4 995,00
- 658. art – O20 funtzioa : Kudeaketa arrunteko kargu desberdinak :- 4 995,00

Oharrak:

DUGUET Anderea :

Berretsi ahal diguzu zeri dagokion egiazki diru laguntzaren diru kopuruak ? Herriko parteari bakarrik edo Jabetza Zergaren osotasunari ?

Auzapez jaunak herriaren parteari dagokiola bakarrik erantzuten du.

AHO BATEZ ONARTUA

22) Euskal Herri Hegoaldeko Herri Elkargoekiko Hitzarmena, Herriko langileak euskalduntzeko lanbide heziketarako.

Euskal Herri Hegoaldeko Herri Elkargoak manatze-orriekiko merkatu bat pasatu du AEK elkartearekin – 22 Marengo karrika-64 100 Baiona - Herri Elkargoko herrien agenteen formakuntzarako.

Merkatu horrek urte batez iraunen du titularrari notifikazio egina izan zaion egunetik landa. Formakuntza lan denboran emana da. Langile bakoitzarentzat, 105 oren klase aurreikusiak dira, 3 oren eginez astean bai eta 4 eguneko bi ikastaldi.

Formakuntza horren finantzatze plana ondokoa daiteke :

- Herri Elkargoak, bulego komunitarioak 2009ko irailaren 24an hartutako erabakiaren arabera, langileen formakuntzaren heren bat hartzen du beregain,
- Euskararen Erakunde Publikoak, Administrazio Kontseiluak 2009ko otsailaren 17an hartutako erabakiaren arabera, langileen formakuntzaren heren bat hartzen du beregain.

Herriko Kontseiluko kideei, langileen formakuntzaren heren bat beregain hartzea proposatua zaie.

Euskal Herri Hegoaldeko Herri Elkargoa merkatuko titularra izanki, faktura desberdinak ordaintzen ditu, osoki, zuzenki AEKri. Ondotik, Ziburu Herriari zuzenduko zaio haren langileen formakuntza gastuen herena itzul diezaion.

2009ko abenduaren 3an bildu den finantzetako Batzordearen iritziaren ondorioz eta deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak :

- Langileen formakuntzaren herena beregain hartzea **ONARTZEN DU**,
- Auzapezari Euskal Herri Hegoaldeko Herri Elkargoarekin hitzarmena (Idazkaritza Orokorrean aurki daitekeena ikusi nahi izanez gero) sinatzeko **BAIMENA EMATEN DIO**.

AHO BATEZ ONARTUA

23) Gizarte gastuen gehiengotze Hitzarmena :

Auzapez jaunak Herriko Kontseiluko kideei soldata prozedurak aztertu eta optimizatzeko misioa ECOFINANCE Sozietateari ematea proposatzen die, kolektibitateak kudeatutako erakunde ezberdinen langileei dagozkien kargu sozialetarako.

Esku hartze honek ondorio hauek izan ditzake (langileen soldata efektiboa aldatu gabe) :

- gehiegi ordaindutakoak kolektibitatearen onerako itzultzea,
- haien gizarte-parte sari batzuen kalkulatzeko moldearen aldakuntza,
- lanbide istripu tasaren murriztea.

Oradainsaria ondokoei dagokie :

- kolektibitatearen onerako diru itzultzeei, gizarte sozial eta lan istripuenetarako,
- Ecofinanceren aholkuei oinarrituz egin 2 urteko ekonomiei, ordainsariaren parametraiaren baitako gizarte karguen tratatzearen aldaketa egin orduko,
- CRAMek lan istripu tasaren azken urte « ber-tarifikatu »aren ondoko 2 urte zibilez.

Ecofinanceren zerbitzu-sariak, gorago idatzitakoaren arabera ikusia izan den ekonomiaren % 50 (ehuneko berrogoi eta hamar)aren heinekoak izanen dira, zergarik gabe,.

Karguak neholako optimizaziorik atera ez lezakeen kasuan, Ecofinancek ez luke batere zerbitzu-saririk hartuko.

2009ko abenduaren 3an bildu den finantzetako Batzordearen iritzia onduz eta deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak :

- Auzapez jaunari gizarte gastuen gehiengotze Hitzarmena ECOFINANCErekin izenpetzeko **BAIMENA EMATEN DIO**.

DUGUET, BAZERQUE, TAPIA Andereek, GOURAUD, MINTEGUI Jaunek, kontra bozkatzen dute.

MADRID Jaunak ez du bozkatzen.

ONARTUA

Oharrak :

GOURAUD Jaunak ez du ulertzen zergatik sozietate pribatu bati deitzen zaion herriko langileen kargu sozialen ibilmoldearen azterketa bat egiteko, bertako koadro batzuk lan hori egin dezaketelarik. Ez ote da herriko zerbitzuen birmoldaketa baten lehen etapa bat gizarte karguen murrizteko ?

Auzapez jaunak ezetz erantzuten du. Ez da neholako eraginik izanen enplegurako.

24) Herriko Liburutegiko liburuen salmenta : Téléthoni eskaintza

Auzapez jaunak Herriko Kontseiluko kideak abisatzen ditu abenduaren 5ean, François Rospide herriko liburutegiko liburu zaharren salmenta gertatu dela eta proposatzen du etekinak téléthoni eskaintzea.

2009ko abenduaren 3an bildu den finantzetako Batzordearen iritzia ondoz eta deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak :

- Salmenta horren etekinak téléthoni eskaintzea **ERABAKITZEN DU**.

AHO BATEZ ONARTUA

25) Sareen lurperatzea SDEPAREN eskutik : 8. erabaki aldatzailea

2007ko irailaren 4, 2008ko ekainaren 24 eta 2009ko agorrilaren 4ko delibero batzuen ondorioz, Herriko Kontseiluak sareen lurperatze obrak, SDEPAREN eskutik, burutzea erabaki du herriko hainbat karriketan.

Obrak, horrela burutuko dira :

Jabea edo beste norbaiten sareak	Obrak orotara	EDFen parte hartzea	SDEPAREN parte hartzea	France Télécom diru laguntza	SDEPAk Aitzin finantzatutako BEZa	Herriaren parte hartzea	SDEPA edo beste mailegua
Beste norbaiten sareak	296 432,35	30 846,70	29 103,87	14 039,70	15 114,88	207 327,20	Beste
Beste norbaiten sareak	508 967,76	61 693,40	58 207,74	2 762,00	77 838,28	308 466,34	SDEPAri mailegua
Beste norbaiten sareak Orotara	805 400,11	92 540,10	87 311,61	16 801,70	92 953,16	515 793,54	
Sarearen jabea	156 809,91		14 253,98		25 323,20	117 232,73	SDEPAri mailegua
Sarearen jabea	67 810,01		7 126,99		5 587,56	55 095,46	Beste
Sarearen jabea orotara	224 619,92		21 380,97		30 910,76	172 328,19	
Obrak orotara	1 030 020,03	92 540,10	108 692,58	16 801,70	123 863,92	688 121,73	

M14 instrukzioaren arabera aurreikusia da obra eta parte hartze hauek aitzinkontu mailan egiaztatuak izan daitezen, beraz, Auzapezak ondoko erabaki aldatzailea proposatzen du :

Inbestizamendu saila				
Artikulua	Funtzioa	Izena	Xahutzeak	Sartzeak
20415	01	Kolektibitate elkarteak	515 793,54	
21534	01	Elektifikatze sareak	193 709,16	
1385	01	Kolektibitate elkarteak		21 380,97
1641	01	Maileguak Eurotan		262 422,66
16875	01	Kolektibitate elkarteak		425 699,07
		Orotara	709 502,70	709 502,70

Auzapez jaunak Herriko Kontseiluko kideei zehazten die M 14 instrukzioak hamabost urtez emandako hornikuntza diru laguntzak amortizatzea ahalbidetzen duela, onuraduna erakunde publiko bat delarik eta halakoa da Syndicat d’Energie des Pyrénées Atlantiques / Pirinio Atlantikoetako Energia Sindikatua (SDEPA/PAES). Orduan proposatzen du epe hau atxikitzea hornikuntza diru-laguntzen amortizaziorako.

2009ko abenduaren 3an bildu den finantzetako Batzordearen iritzia ondoz eta deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak :

- Gorago azaldua den bezala erabaki aldatzailea **ONARTZEN DU**,
- Emandako hornikuntza diru laguntzak amortizatzeko 15 urteko epea **HAUTATZEN DU**.

AHO BATEZ ONARTUA

26) Sareen lurperatzea SDEPAren eskutik : 9. Erabaki aldatzailea

2007 urtea aitzin hartutako delibero desberdinen ondorioz, Herriko Kontseiluak sareen lurperatze obrak eginarazi ditu herriko karrika desberdinetan Syndicat d’Energie des Pyrénées Atlantiques / Pirinio Atlantikoetako Energia Sindikatuaren eskutik (SDEPA/PAES).

Obra horiek denak eginak dira eta SDEPA/PAESek hauei dagozkien behin betiko kontuak helarazi dizkigu.

Aitzinkontu-egoera erregularizatzeko M14 nomenklatura aplikatuz, Auzapez Jaunak ondoko erabaki aldatzailea proposatzen du, 2009ko abenduaren 31an SDEPA/PAESeri zor zaion kopurua 514 420,75 €koa dela kontutan hartuz.

Ibilmolde saila				
Artikulua	Funtzioa	Izena	Xahutzeak	Sartzeak
O23	01	Inbestizamendu sailara igorpena	44 387,18	
7788	01	Usaiaz kanpoko ekoizpen desberdinak		44 387,18
		Orotara	44 387,18	44 387,18
Inbestizamendu saila				
Artikulua	Funtzioa	Izena	Xahutzeak	Sartzeak
16875	01	Kolektibitate elkarteak	44 387,18	
20415	01	Kolektibitate elkarteak	277 485,33	
21534	01	Elektrifikatze sareak	307 238,92	
1385	01	Kolektibitate elkarteak		25 916,32
16875	01	Kolektibitate elkarteak		558 807,93
O21	01	Ibilmolde sailatik igorpena		44 387,18
		Orotara	629 111,43	629 111,43

Auzapez jaunak emanak izan diren hornikuntza diru laguntzen amortizatze arbelak aurkezten ditu :

Urtea	Zuzkiduraren kopurua	Urtea	Zuzkiduraren kopurua
2010	28 415,44	2018	13 653,04
2011	28 415,44	2019	13 653,04
2012	25 974,04	2020	13 653,04
2013	24 383,83	2021	13 653,04
2014	23 146,67	2022	13 653,10
2015	23 146,62	2023	8 414,82
2016	19 454,18	2024	8 415,86
2017	19 454,17	Total	277 485,33

2009ko abenduaren 3an bildu den finantzetako Batzordearen iritzia ondu eta deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak :

- Erabaki aldatzailea gorago azaldu bezala **ONARTZEN DU**,
- Amortizatze arbela gorago aurkeztu bezala **ONARTZEN DU**.

AHO BATEZ ONARTUA

IV/ Herriko Etxeko langileak

Txostengilea : LOLOM jauna

1) Laneko osasun eta segurtasun zerbitzuko prebentzio medikuntzan sartzea

Auzapez jaunak oroitazten die Herriko Kontseiluko kideei kolektibitateek prebentzio medikuntza zerbitzu bat izan behar dutela 1984ko urtarrilaren 26ko 84-53 legearen 108-2 artikuluan zehaztutako baldintzetan.

Pirinio Atlantiko Lurraldeko Funtzio Publikoko Kudeaketa Zentroak «laneko osasun segurtasun» zerbitzu bat kudeatzen du eta hau «prebentzio medikuntza» polo batez osatua da.

Auzapez jaunak, Kudeaketa Zentroak kudeatzen duen Laneko Osasun Segurtasun zerbitzuko prebentzio medikuntza prestazioa 2010eko urtarrilaren 1etik goiti baliatzea proposatzen du.

Azalpen honen ondotik, 2009ko abenduaren 3an bildu den Finantza eta Herriko Langileen Batzordearen iritzia ondu eta deliberratu ondoren, Herriko Kontseiluak :

- Kudeaketa Zentroak kudeatzen duen Laneko Osasun Segurtasun zerbitzuko prebentzio medikuntza prestazioa 2010eko urtarrilaren 1etik goiti baliatzea **ERABAKITZEN DU**,
- Auzapez Jaunari honi dagokion hitzarmena izenpetzeko **BAIMENA EMATEN DIO**,
- Kredituak urteko aitzinkontuan sartzen direla **AZPIMARRATZEN DU**.

AHO BATEZ ONARTUA

2) Haur gazte lurralde hezitzaile lanpostu koadroko langileen ordainsari erregimena ematea

Auzapez jaunak Herriko Kontseiluko kideak abisatzen ditu 1984ko urtarrilaren 26ko legearen 88. artikulua lurralde kolektibitateen eta haien erakunde publikoen biltzar erabakitzailerik gaitasuna ematen diela haien langileen indemnitze sistema deliberratu baten bitartez finkatzeko, Estatuko zerbitzu desberdinetan finkatua denaren heinean (parekotasun printzipioa).

2007ko abenduaren 12ko deliberratu baten ondorioz, Herriko Kontseiluak deliberratu bakar batetan berriz hartu zuen Ziburu Hiriko langilerik emana zaien ordainsari sistema.

Herriko haurtzaindegia zuzendaritza kudeatzen duen Haur Gazte Hezitzaile batek gaur egun zerbitzu prima bat eskuratzen du. Haren betebeharrak, egindako lan gehigarrietan, arduetan eta zerbitzatzeko moldean jardunez aurrean aurkitzen dituen eginbeharrak kontutan hartzeko, aholkulari, gizarte-hezitzaile laguntzaileak, haur gazte hezitzaileen lan gehigarri eta eginbeharren erakusle den ordainsari forfataria ematea aurreikusia da.

Azalpen honen ondotik, 2009ko abenduaren 3an bildu den Finantza eta Herriko Langileen Batzordearen iritzia ondu eta deliberratu ondoren, Herriko Kontseiluak :

- aholkulari, gizarte-hezitzaile laguntzaileak, haur gazte hezitzaileen lan gehigarri eta eginbeharren erakusle den ordainsari forfataria ematea **ERABAKITZEN DU**
- Auzapez Jaunari, langileak dituen ardura eta haren zerbitzatzeko moldearen arabera banako atribuzioa abian jartzeko **BAIMENA EMATEN DIO**.

AHO BATEZ ONARTUA

3) Goi mailako teknikari buru enplegu sortzea

Auzapez Jaunak Herriko Kontseiluko kideak abisatzen ditu hirigintza eta kalastra zerbitzuan ari den langile bat laster erretretara joanen dela eta horren ondorioz, goi mailako teknikari buru bat engaiatzea pentsatua izan dela.

Hirigintza mailan ezagutza on bat eta praktika ukanki, agente honek lurzoru eskubideari (eraikitze baimena, eraikitze aitortpenak, hirigintza ziurtagiriak,... etab) doazkion baimen eskaeren araudi eta tekniko instrukzioaz eta dozier ezberdinen jarraipenaz arduratuko da.

Aurreikusia da goi mailako teknikari buru gradua duen agente bat denbora osoz kontratatzea, lekualdaketa edo lanpostu desuztartze baten bitartez.

Azalpen honen ondotik, 2009ko abenduaren 3an bildu den Finantza eta Herriko Langileen Batzordearen iritzia ondu eta deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak :

- goi mailako teknikari buru lanpostu bat 2010eko martxoaren 1etik goiti sortzea **ERABAKITZEN DU**,
- Lanpostu zerrenden arbela horren arabera **ALDATZEN DU**.

MADRID Jaunak galdegiten du pertsona jadanik hautatua denez.

Auzapez Jaunak erantzuten du hiru hautagaitza dozier heldu zaizkiola eta hautua ez dela arrunt egina.

DUGUET Anderea :

Zoin da Rouet Jaunaren gradua gaur egun ? Auzapez Jaunaren erantzuna : Erredaktore Buru. Rouet Jaunak eta hartuko dugun goi mailako teknikari buruak soldata berdina ukanen dute ? Auzapez Jaunaren erantzuna : Berdintsua.

AHO BATEZ ONARTUA

4) 2. klaseko administrari laguntzaile lanpostu baten sortzea

Auzapez jaunak Herriko Kontseiluko kideak abisatzen ditu herriko zerbitzuen arteko barne eta kanpo komunikazioaz arduratzen den agentea ordezkatzeko komeni litzatekeela, erretretara joanen baita.

Herriko informazio aldizkaria, herriko agenda eta haien finantzatzeko publizitateen bilaketa burutzea izanen dira agente horrek bete beharko dituen kargu nagusiak. Herriko gertakariez argazki erreportaiak ere segurtatu eta internet bidezko komunikazioa kudeatu beharko ditu.

Azalpen honen ondotik, 2009ko abenduaren 3an bildu den Finantza eta Herriko Langileen Batzordearen iritzia ondu eta deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak :

- 2. klaseko administrari laguntzaile lanpostu bat 2009ko abenduaren 1etik goiti sortzea **ERABAKITZEN DU**,
- Lanpostu zerrenden arbela horren arabera **ALDATZEN DU**.

Oharrak :

TAPIA Anderea :

Postu horretarako, begiratu den pertsona ez da euskalduna.

Zonbait minutu lehenago izenpetu hitzarmenarekin sortzen den inkoherentzia agerian utzi nahi dugu.

DUGUET Anderea :

« Gure iritziz, barne eta kanpo komunikazioaz arduratzen den langile bat beharrezkoa da. Hala ere, begiratu den pertsona ez da euskalduna eta EHHHE eta EEPekin izenpetu dugun hitzarmenaren kontra doa.

Ulertu dugu kontratatua izanen den pertsona ZZOren semea dela eta ez dugu inolaz ere delibero horretan parte hartuko, deontologia arazo batzuegatik : familia berdineko langileak funtzionario egitura batetan.

Auzapez jaunak zehazten digu : « pertsona horrek administrazio konkurtsoak pasatu behar ditu eta, ondorioz, ez daiteke luzaz Ziburun egonen ». BBK bat egokiagoa litzateke beraz.

Azpimarratu nahi dugu ez dugula ezer, ongi ezagutzen dugun pertsona horren kontra, baina ezin diogu inolaz ere delibero honi baliagarritasunik eman.

Ez dugu bozketa horretan parte hartuko. »

DUGUET, BAZERQUE Andereek, GOURAUD Jaunak ez dute bozketan parte hartzen.

TAPIA Andereak eta MINTEGUI Jaunak kontra bozkatzen dute.

ONARTUA

5) Bi lanpostu sortze CAE dispositiboaren baitan

Auzapez jaunak Herriko Kontseiluko kideak abisatzen ditu Enpleguan Laguntza Kontratu (ELK/CAE) behin-behineko lan kontratua dela, lan bat aurkitzeko zailtasun sozial eta profesionalak dituzten lanik gabeko pertsonak lan bat atzematzen laguntzeko helburuarekin. Kontratu hau sektore ez merkatariari zuzentzen zaio (lurralde kolektibitateak, 1901 legepeko elkarteak,...).

Enpleguan Laguntza Kontratu bat (ELK/CAE) bururatu aitzin, nagusiak hitzarmen bat izenpetu behar du Estatuarentzat aritzen den egitura edo erakunde batekin.

Enpleguan laguntza kontratu bat bururatzearekin, nagusiak hainbat laguntza lor ditzake : gizarte-parte sari arintzea, hein batean, Estatuaren laguntza SMICaren portzentajearen finkatua.

1 – Esleipena idazkaritza orokorrera

2. klaseko administrazio laguntzaile batek, haurdunaldiaren ondotik, eskubidezko denbora partzial bat, % 50en heinekoa eskatu du, haren hiru urte petikako haurra hazteko. Agente horren huts-egiteei aurre egiteko, administrazio agente lanpostu bat sor daiteke, Enplegu Laguntza Kontratu baten bitartez. Behin-behineko kontratu hori 12 hilabeteko eperako bururatuko da. Behin berritu daiteke. Soldata, orduko gutieneko sariaren oinarri apalenaren arabera finkatua izanen da.

2 – Esleipena zerbitzu teknikoetan

Gaur egun, herriko zerbitzu teknikoek hainbat kargu betetzen dituzte, hauetarik batzuk langile gehiago eskatzen dutelarik, besteak beste herriko eraikinen mantentze arloan. Posible da

beraz, xede anitzeko agente lanpostu hori sortzea Enplegu Laguntza Kontratu baten bitartez. Behin-behineko kontratu hori 12 hilabeteko eperako bururatuko da. Behin berritu daiteke. Soldata, orduko gutieneko sariaren oinarri apalenaren arabera finkatua izanen da.

Azalpen honen ondotik, 2009ko urriaren 28an bildu den Finantza eta Herriko Langileen Batzordearen iritzia ondu eta deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak :

- Auzapez Jaunari, hiriaren izenean eta haren konduko, Pôle Emploirekin ondoko kontratatzeak ahalbidetuko dituzten hitzarmenak izenpetzeko **BAIMENA EMATEN DIO.**
 - 2009ko azaroaren 1etik goiti, idazkaritza orokorrean, kontratuko agente batena, 20 orenez astean, behin berritu daitekeen 12 hilabeteko eperako,
 - 2009ko abenduaren 1etik goiti, zerbitzu teknikoetan, xede anitzeko agente batena, 35 orenez astean, behin berritu daitekeen 12 hilabeteko eperako.
- Lanpostu zerrenden arbela horren arabera **ALDATZEN DU.**

AHO BATEZ ONARTUA

6) 1. klaseko haurtzaintza laguntzaile lanpostu baten sortzea

Auzapez Jaunak Herriko Kontseiluko kideak abisatzen ditu, Marie Fleuret harrera anitzeko haurtzaindegian hartuak diren haur kopuruaren emendatze handiari aurre egiteko eta arautegi berriei begira, komeni dela 1. klaseko haurtzaintza laguntzaile lanpostu bat denbora osoz sortzea.

Azalpen honen ondotik, 2009ko urriaren 28an bildu den Finantza eta Herriko Langileen Batzordearen iritzia ondu eta deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak :

- 1. klaseko haurtzaintza laguntzaile lanpostu bat denbora osoz, 2010eko urtarrilaren 1etik goiti sortzea **ERABAKITZEN DU,**
- Lanpostu zerrenden arbela horren arabera **ALDATZEN DU.**

AHO BATEZ ONARTUA

7) Aitzinamendua lortu eta lortzekotan direnen ratioen zehaztapena

Auzapez Jaunak Herriko Kontseiluko kideei oroitarazten die, lurralde funtzio publikoari lotua den 1984ko urtarrilaren 26ko lege aldatuaren 49. artikuluari konformatuz, biltzar erabakitzaile bakoitzari dagokiola, Pareko Batzorde Teknikoaren iritzia bildu ondoren, gradu kontsideratu bat lor dezaketen funtzionarioen gehienezko kopurua zehazteko tasa finkatzea, gradu horretara heltzeko baldintzak betetzen dituzten agenteen kopurutik abiatuz, azpimarratuz neurri honek ez duela polizia munizipaleko agenteen lanpostu koadroa hunkitzen.

Pirinio Atlantikoetako Lurralde Funtzio Publikoaren Kudeaketa Zentroari zuzenduak izan zaizkion aitzinamendu proposamen dozierrak kontutan harturik, gradu aitzinamendu ratio batzuk, horrela finkatu edota aldatu behar dira :

Lurralde administrazio laguntzaile lanpostu koadroa

Jatorrizko gradua : 2. klaseko administrazio laguntzailea
Etzipen gradua : 1. klaseko administrazio laguntzailea
Proposaturiko promozio tasa : % 100

Lurralde erredaktore lanpostu koadroa

Jatorrizko gradua : Erredaktore nagusi
Etzipen gradua : Erredaktore buru
Proposaturiko promozio tasa : % 100

Lurralde teknikari lanpostu koadroa

Jatorrizko gradua : Goi mailako teknikari nagusi
Etzipen gradua : Teknikari nagusi buru
Proposaturiko promozio tasa : % 100

2009ko abenduaren 3an bildu den Finantza eta Herriko Langileen Batzardea eta 2009ko abenduaren 7an bildu den Pareko Batzarde Teknikoaren iritzia onduz, eta deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak :

- Promozio tasa, 1. klaseko administrazio laguntzaile, erredaktore buru eta goi mailako teknikari nagusi graduatarako atzipen graduetako % 100ean **FINKATZEN DU**.

AHO BATEZ ONARTUA

8) Gradu aitzinamendua 2010 urterako

Auzapez jaunak Herriko Kontseiluko kideak abisatzen ditu ondoko postuak bestelakotzea komeni dela, agenteen izendatzea burutzeko 2010eko gradu aitzinamendurako, horretarako gaitasuna duten Pareko Administrazio Batzardeen iritzia adierazi ondoren ::

GRADUA	GRADU AITZINAMENDUA	KOPURUA
2. klaseko administrazio laguntzailea	1. klaseko administrazio laguntzailea	2
Erredaktore	Erredaktore nagusi	1
Erredaktore nagusi	Erredaktore buru	1
Kudeantza agente	Kudeantza agente nagusi	1
Brigadier	Brigadier nagusi	1

2009ko abenduaren 3an bildu den Finantza eta Herriko Langileen Batzardea eta 2009ko abenduaren 7an bildu den Pareko Batzarde Teknikoaren iritzia onduz, eta deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak :

- 2010eko urtarrilaren 1etik goiti, gorago azaldu aitzinamendu graduei loturiko lanpostuak **BESTELAKOTZEN DITU**

- Lanpostu zerrenden arbela horren arabera **ALDATZEN DU**.

AHO BATEZ ONARTUA

9) Herriko Etxeko langileak : Segurantzak kontratuak

Auzapez Jaunak Herriko Kontseiluko kideei, C.N.R.A.C.L.en afiliatuak diren haien funtzionario eta Segurantzak Sozialeko Sistema Orokorrari lotuak diren agenteen babesa soziala hunkitzen dituzten kolektibitate publikoen estatutu-obligazioak oroitarazten dizkie.

Arrisku horiek estaltzeko, kolektibitateek segurantzak kontratu bat hartzen ahal dute.

Elkargoak Kudeaketa Zentroari aukera ezberdinak aztertzea eskatu dio, Kudeaketa Zentroaren mailan arriskuak mutualizatzen dituen talde kontratu batetara heltzeko, 30 funtzionario baino gehiagoko elkargoetan.

Kudeaketa Zentroak, Merkatu Publikoen Kodearen araberrako prozedura abian jarri ondoren, Caisse Nationale de Prévoyance (CNP) hautatu du asuratzailer gisa eta DEXIA SOFCAP (Société Française de Courtage d'Assurance du Personnel) artekari kudeatzaile gisa.

Atxiki daitezkeen CNPren proposamenak ondokoak dira :

C.N.R.A.C.L.ak estaltzen dituen funtzionarioak hunkitzen dituen kontratu bat. Primaren tasa % 1,52tan finkatua da.

Segurantzak Sozialeko Sistema Orokorrari lotuak diren agenteak, guti gora behera 200 oren lan hiru hilabetetan egiten dituztenak % 0,85eko tasa bakarrarekin.

Bi kasuetan, kapitalizazioan diren kontratuak dira (asuratzailerak ordainsaria segitzen du kontratua bukatuta ere, kontratu garaian gertatutako ez beharretarako).

Elkargoak zehazten du asurantzak oinarria. Oinarrizko tratamenduaz osatua da eta honi indizio hobari berria, kalte-ordainak eta nagusi kargu osoak edo parte bat gehitu behar zaio.

2009ko abenduaren 3an bildu den Finantzak eta Herriko Langileen Batzordearen iritzieren ondorioz, eta deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak :

- CNPek DEXIA SOFCAPekin artekari gisa 2010eko urtarrilaren 1etik goiti, lau urterako, proposatzen dituen talde-asurantzak kontratuak hartzea **ERABAKITZEN DU**,
- Auzapez Jaunari, horretarako dokumentu guztiak izenpetu eta jarduteko **BAIMENA EMATEN DIO**.

AHO BATEZ ONARTUA

V/ Zerbitzu Teknikoak

Txostengilea : LALANNE Jauna

1) Dei Publikoen Batzordea : Lehendakari-orde baten hautaketa

Auzapez jaunak Herriko Kontseiluko kideei adierazten die, Merkatu Publikoetako kodigo berriko 22. artikulua dion bezala, Dei Publikoetako Batzordeak ordezkari bat igor dezakeela huts eginez gero.

Auzapez jaunak zehazten du, Dei Publikoetako Batzordea sortu delarik, 2008ko martxoaren 26ko Herriko Kontseiluaren kari, xedapen hori ez zela finkatu.

Ondorioz, Auzapez jaunak proposatzen du Lehendakari orde bat izendatua izan dadin, ordezkari horren segurtatzeko.

Azalpen honen ondotik, eta deliberatu ondoren, komenigarria izanen da Herriko Kontseiluak :

- Jean-Jacques GOUAILLARDET Jauna, Lehendakariaren huts-egite kasu batetan, Dei Publikoetako Batzordearen lehendakariaren ardura segurtatzeko ordezkari gisa **IZENDATZEA.**

Oharrak :

DUGUET Anderea :

DPBeko kideek ez dituzte DPBeko bildumak eskuratzen (ikus merkatu publikoetako Kodearen 22. artikulua)

Kontseiluko kideei jakinarazi nahi diegu, ezeztatua izan den azaroaren 2ko DPBean, oposizioko kideak ez direla abisatuak izan. Lolom Jauna argi izan da gai horretan, ez zaio oposizioko hautetsien abisatzeko « kargurik » eman.

Mespretxua, axolagabekeria, aintzat hartzerik ez, errespetu falta edo sinpleki probokazioa ? Ez Auzapez Jauna, ez gira bigarren mailako hautetsiak..

Lolom Jaunaren hautagaitzari dagokionez, ezin da onartu 22. artikulua araberan, Auzapez jaunaren ordezkaria ezin baita inolaz ere batzordeko beste kide bat izan.

AHO BATEZ ONARTUA

2) Merkatu Publikoak : Aldaketak Bordagain dorrearen berrizatzeko (2. zatia – . 1 fasea)

Auzapez jaunak Herriko Kontseiluko kideei adierazten die komenigarria litzatekeela aldaketak ekartzea 3. zatia (hargintza) eta 7. zatiari (elektrizitatea) dagozkien merkatuei

3. zatiari dagokionez, aldaketaren objektua, obren zamaren emendatze batetan datza. Hauexek dira, harrien hondar-zurrustako garbiketa, harrien obratze osagarri bat (horniduratik kanpo)

eta erortze oin gisako EU kutxatila bat. 2009ko maiatzaren 15eko engaiamendu aktan finkatua den oinarrizko merkatuaren prezioa, ondotik azaldu bezala aldatua da :

Obrak merkatu oinarria Z.G.B:	19 488.89 €
Lan gehigarriak Z.G.B	9 222.02 €
Oro har ondoko kopuru orokor aldatua :	129 410.91 €

% 8.30eko gainbalio bat

7. zatiari dagokionez, aldaketaren objektua, obren zamaren emendatze batetan datza. Hauexek dira : gunearen balorea eta pertsonen seguritateari egokitua den presentzia detekzio eta sokorri seguritate elementuen aldaketan datza, merkatu garaian ezagunak ez ziren seguritate kontrola bulegoaren preskizioen ondorioz. 2009ko agorrilaren 18ko engaiamendu aktan finkatua den oinarrizko merkatuaren prezioa, ondotik azaldu bezala aldatua da :

Obrak merkatu oinarria Z.G.B :	11 818.45 €
Lan gehigarriak Z.G.B:	2 315.22 €
Oro har ondoko kopuru orokor aldatua	14 133.67 €

% 19.59ko gainbalio bat

Dei Publikoetako Batzordea 2009ko azaroaren 12an bildu da 11:30etan eta aldaketa hauei aldeko iritzia eman die.

Azalpen honen ondotik, 2009ko azaroaren 12an bildu den Dei Publikoetako Batzordearen aldeko iritziaren ondorioz eta deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak :

- 2009ko azaroaren 12an bildu den Dei Publikoetako Batzordearen erabakiak **BERRESTEN DITU**,
- Auzapez Jaunari merkatuei ekarri aldaketak gorago aipatu esleitzailleekin izenpetzeko **BAIMENA EMATEN DIO**.

AHO BATEZ ONARTUA

Auzapez jaunak Herriko Kontseiluari galdegiten dio gai-ordenan galdera gehigarri bat ekartzea : haurrentzat jokoak erosi behar izan dituen Marinela eskolako zuzendari Andereari izan dituen xahutzeak ordaintzea.

Aho batez, Herriko Kontseiluak gai honetaz deliberatzea onartzen du.

Marinela ama-eskolako haurren eguberri :

Auzapez jaunak Herriko Kontseiluko kideei oroitarazten die urte guziz kreditu bat onartzen zaiela eskolei eguberri kari.

Auzapez jaunak Herriko Kontseiluko kideak abisatzen ditu Marinela ama-eskolako zuzendari Andereak zuzenki erosketa bat egin duela gorago azaldutako egoeran eta haren diru propioarekin ordaindu duela hornitzailea. Horretarako 124,94€. xahutu ditu.

Auzapez Jaunak adierazten du beraz JACONO Andereari diru kopuru hori itzuli behar zaiola.

Azalpen honen ondorioz eta deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak :

- JACONO Anderea, ama-eskolako zuzendariari, berak zuzenki ordaindu duen fakturaren dirua, 124,94 €, itzultzea erabaki du.

AHO BATEZ ONARTUA

VI / Orotariko gaiak

- « Ensemble pour Ciboure » taldeak pausatutako hiru galdera

1/ Marinela eskola hetsia da. Zein dira eskola horren etorkizunerako hartu neurriak ?

Saioaren hastapenean erran dugun harira, gai horri buruzko egiazko eztabaida bat nahi genuke, eta horrela ez bada, hau da gure galdera :

Harriduraz ikusi dugu Ziburuko Mariñela eskolan izan diren kalteen inportantzia. Estonamenduz, euri uren biltzeko urontziari loturiko obrak hasi direnetik, egoera okertzen ikusi dugu.

Larritasunez, ohartu gara, haurrak lanjerrean zirela.

Herria azkarki kaltetzen duen arazo horrek, eta bere ondorio sozial zein finantzarioek, mereziko zuten herriko kontseiluko ez ohiko saio bat.

- Zertan dira beren eskola ohiaren eta eskola berriaren arteko haurren leku aldaketak ?
- Zertan da Ziburuko haurren banaketa ?
- Zer bilakatzen dira Herriko Etxeko langileak ?
- Zer erran eskola honen etorkizun kezkarriari buruz, heldu diren bi urteetarako ; adituen arteko kalapitak, arduren banaketa, desegite edo konponketa, obren iraupena, haurrak ez dira Ziburura laster itzuliko. Haurrak eramanak izan dira Donibane Lohizunera edo Zokoara, kontzertaziorik gabe.
- Zer erran euri urak biltzeko lantegiaren kokapenaz, hots, herri barnean ?

Aipa dezagun berriz biltegitratze ontzia.

Biltegitratze ontzi horri buruzko eztabaida bat hasi zen, Zubiburu eraiki aitzin, 2003an eta 2006an, bainan auzapezak ez zuen ontzi hori eraiki nahi izan. Kontserba lantegiak suntsituak izan zirelarik, putzu septikoa deskubritua izan zen baina segidan bete izan zen. Eta geroztik, Ziburu ez da sekulan hainbeste urperatua izan ? Agian horri lotua da ez!

Hondakin urei dagokienez, Ziburu legez kanpo izendatua izan da, eta Europako normak betetzen ez zituelako, agiri bat notifikatua izan zaio 2006ko urrian.

Aterabide bat atzeman behar zen, ahal bezain fite, eguneroko normak segurtatzeko, baita ere, « Santa Teresa Lotizamenduaren eraikitzea segurtatzeko.

Oroït gaitezen, Ziburuko enpresa handienetariko bat kanporatzeko entseguetaz, Zubiburuko ateratzean egin behar zen itzulgune baten ondoan kokatua zelako.

Denbora pasa ahala, beste aterabide bat atzemana izan da : Arrantza eskolako lur ohia (Larzabal kolegio ohia), herri barne barnean !

Ziburuko hirigintza batzordeak bere oniritzia emana zuen lur hori erosteko etxebizitza sozialak eraikitzeko xedearekin.

Ziburuko auzapezak (herri elkargoko etxebizitza saileko lehendakari ordea) nahiago izan du lur hori Euskal Herri Hegoaldeko Herri Elkargoak eros dezan, 5000m³-ko ontzi bat eraikitzeko, etxebizitza sozialekin horren gainean.

Operazioa positiboa izaten ahalko zen Ziburuko finantzei begira, baina oztopo batzuegatik ezin izan zen bideratu!!!

Alde batetik, ez dugu dirurik xahutzen, etxebizitza sozialentzat bainan bestetik, eskola publiko bat galtzen dugu.

Soinu mailako kalteetatik aparte, jende batzu kezkatzen ziren egitura horiek eragiten ahal zuten kutsadurarekiko (usainak, Gas-isuriak).

Prefetak, berak ere, ez du aski konduan hartu hurbil bizi den biztanleria sentsiblea :
2 hautzaindegi, eskola bat, adineko jendeentzako etxe bat, ahantzi gabe biztanleriaren dentsitate azkarra.

Beste kokapen batek, handik ehun metro batzuetara, arazo horiek konponduko zituen.

Ondorioak

Koherentzia, ikuspegi zabala eta jarraipena herriko etxearen politika baten ezaugarri nagusiak izan beharko lirateke; eta hori gaurko egunari begira baita ere gure herriaren eta bere herritarren etorkizunari begira.

Akats berri inportante hori, hirigintzan zein sareen kudeaketa mailan, politika kaotiko baten seinale da, zeinetan inprobizazioa zentzugabekeriari lotzen zaion. Gaur egun, 107 haur eta beren familiek dituzte ondorioak pairatzen.

Marinela eskola hetsia da. Zein dira eskola honen etorkizunari dagozkion xedeak ?

Auzapez Jaunak erantzuten du :

Agorrilaren bukaeraz gero, Ziburu Hiriko Zerbitzu Teknikoetako Zuzendaritza ohartu zen pitzadura batzuk agertzen zirela MARINELA Ama-Eskola Multzoaren barnean eta bazterretan.

Joan den irailaren 9tik beretik, Herriko Etxeak, hamabost bat pitzadura irekitze seinaleen jarraipena abian jartzea erabaki zuen.

Auzapez jaunak Eskolako Kontseiluari egoera horren berri eman dio azaroaren 5eko bilkuran. Azken egunetako egoeraren behaketak, eta batez ere azaroaren 28an, larunbatean egindakoak, hainbat kalte sakon agerian utzi ditu eraikinetan eta behartu gaitu, berehalako arriskuaz oharturik, eskola horren hesteko erabakia hartzera abenduaren 1eko asteartean berean.

Ikuskaritza eta Marinelako irakasle taldearekin bildu ondoren, Auzapezak berehala eta luzerako eskola hestea erabaki du, administratibo agindu baten bitartez, eta hau, zuhurtasun-printzipioaren izenean eta gerta daitekeen istripu oro saihesteko.

Aldi berean, Auzitegiari eskaera bat luzatu zaio ez-behar tekniko horien jatorria eta batez ere eskola horren ondo-ondoan Euskal Herri Hegoaldeko Herri Elkargoak egindako biltegi-irratze obrekin lotura zuzena dagoenez zehaztuko duen justizia arloko aditu bat izenda dezan.

Ordularipeko lasterkaldi bat abian jarri izan da orduan eskola horretan eskolatuak diren haurrei harrera onena eskaintzeko. Behin-behineko aterabideak aurkituak izan dira Akademiako Ikuskaritza eta eskolako irakasleekin harrera hori abenduaren 3ko ostegunetik beretik segurtatua izan dadin. Bi klase horrela lekuz aldatuak izan dira Donibane Lohizuneko

eskola batera, bertako Auzapeza den Peyuco DUHART Jaunaren onginahia eta berehalako erreaktibotasunari esker. Sokoako PEP elkarteko Lehendakari Jaunak ere, egun berean, lokal batzuk utzi ditu eta horri esker, Marinelako beste 3 klaseak hartu ahal izan dira berehala.

Haurrei emandako klaseen jarraipena segurtatzeko berehalakoa bete ondoren, Hiriko Zerbitzu Teknikoek ondotik haien indar guziak batu dituzte Sokoako eraikin berri horretan harrera baldintzak hobetzeko gisan :

- Lokalak gaur egun, molde ezin hobean eskatutako seguritate normei arrunt egokituak dira,
- Jantegi eta haurtzaindegi zerbitzuak erabat segurtatuak dira,
- Kanpo eremu osoki segurtatu bat plantan jarria izan da haurrentzat.

Gaur egungo erronka Jules Ferry eskola ohiaren erreberitze lanen bukatzean datza, urtarrileko eskola sartzetik beretik Donibane Lohizunera lekuz aldatuak izan diren klaseak hartzeko. Obra horiek burutu behar dituzten enpresa eta gure zerbitzuen inbestizamendua kontutan harturik, ez da dudarik haurrak Sokoan hartuak izanen direla oporretatik landa berehala.

Marinela eskolako gurasoen arduradunak, zailtasunean diren familiak zerrendatzen ari dira orain berean, Herriko Etxeak eskola garraio behin behineko zerbitzu bat lehen bai lehen antola dezan.

2/ Zer izanen da Aisialdi Zentroaren geroa ?

Ithurri Baitan kokatu behar zen aterberik gabeko aisialdi zentroari dagokion 2008ko abenduaren 22ko deliberoa oraindik, airean da.

Batzorde batean, komunikazio baten bitartez, aipatu zenigun programa aldaketa bat, zentroa Zokoan kokatzeko. (Jules Ferry eskola ohia)

Orduan, zertan gara ?

Auzapez Jaunak azpimarratzen du Aisialdi Zentroa Sokoan ezartzeko erabakia ez dela zalantzan jarria. Baina gibelapen batzuekin.

DUGUET Andereak dio Herriko Kontseiluak Aisialdi Zentroa Ithurri Baitan ezartzeko erabakia ezeztatu behar daitekeela.

Auzapez Jaunak ados dela erantzuten du.

3/ Agorette karrikako lur-jauziaren ondotik, zer segida emanen zaie proiektu honi eta ondoko eraikinek jasan dituzten kalteei ? Oposizioa bat-batean abisatua izan da lur-jauzi horretaz. Alta lur zati horretan deus ez zela eraikitzen ahal ekarria zen LOP ohian. Zer bilakatuko da lur zati hori ? Zoin dira alde guziek jasandako kalteak ?

Herriko Kontseiluko kideei zehaztu nahi diegu gu ere bat-batean abisatua izan garela, Agorette karrikako lur-jauzi inportante horretaz, Edouard Herriot eskola ohiko eraikinen ondoan. Lur-jauzi horrek kalte ainitz eragin ditu eraikin horietan. Etxebizitzak azkarki eraiki dira azken urte hauetan, eta oroitarazten dugu **LOP ohian lur zati horretan ez zela deus eraikitzen ahal**, eta horrek bazuela arrazoinik.

Bakotxak badaki Bordagain, mendixka mugikor eta ezegonkorra dela, iturri frangorengatik, besteak beste.

Jakin nahi genuke kaltetuak diren ondoko eraikinak zer bilakatuko diren.

Auzapez Jaunak dio bera ere bat-batean abisatua izan dela lur-jauzi horretaz. Zehazten du eraikitze baimena alde guzietatik ZPPAUPari egokitzen zaiola eta herriko etxeak lur zoru eta

betoinaren ikerketa bat eskatu duela behartua ez zelarik. Administrazioak dozierra onartu du. Kalteak zuzenbide pribatua eta asurantzaren menpe dira.

IBARLOZA Jaunak nahi luke ikurrina urte osoan Herriko Etxeko fatxadan ezarria izan dadin. Herriko Kontseilua aho batez proposamen honen alde agertzen da.

Gai ordena agorturik, saioa 20:30etan bukatzen da.